

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure jarduera nagusia produktuaren **ideia** bera **sortzea eta garatzea** da eta lehen pausoa emanda garapen lana beste enpresetara bideratuko dugu, baina betiere gu horren arduradun garela.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu, jarduerekin hasteko ideiarene **patentea** lortzeko agiriak lortzea dela pauso garrantzitsu bat. Produktu berri eta berritzailea izanik, makina eta egitasmo honen onurak gure enpresak bakarrik baliatzeko lortu beharko litzateke patentea, beste inork beregana ez dezan.

Tresnak guk geuk fabrikatu ezean, ordea, makina horiek **alokatzea eta saltzea** dira gure lanak , hortaz, komertzial lanetan jardutea izango da betebeharra. Baina bezeroak lortze hutsarekin ezin du enpresa batek aurrera egin, noski eta salmenta **ondorengo arreta eta zerbitzua** ere eskaini behar dugu. Beraien zalantzak argitu, matxuren berri jaso eta konponketak bideratu behar ditugu.